



NATURAREN IBILBIDEA

Lautada aspaldidanik gizatiartutako lurra da, hala ere, horrek ez du esan nahi naturak bere lekua galdu duenik. Pixkanaka eremu baxuetako basoak landa lurrek hartu zituzten, bitartean abereak mendizerretan bazkatzen ziren bertako landaretzan inpaktu handia eraginez. Horrela ere, hainbat baso-irla gaur egun arte iraun dute, barne zerretan zein lautadan bertan nekazal lurren artean. Baso hauek gehienbat erkameztiz osaturik daude, baina Aldaia mendiaren inguruan artadiak ere badira. Medizerretako magaletan, iparraldean ameztiak aurki ditzazkegu, eta hegoaldean haritz kandugabeak. Eta Entzia-Iturrietako mendizerratan pagadiak. Bestalde, gaur egun urtegiak eta ureztatzeak putzuak ekosistema berri bat ekarri dute, hezeguneena hain zuzen ere, hauek oso baliagarriak dira bertatik igarotzen diren hegaztientzat. Ezin ahaztu ingurune honetan ditugun padurak.

Bestalde, aipatu behar da, energia berriztagarrien arloan lautada eskualde aintzindaria izan dela. Eztabaidak egon badira ere, haize errota eta eguzki-plakak gure paisaiaren parte dira. Araia lautadako industrializazioaren aintzindaria izan zen, bertan burni-meategiak eta Ajuria-Urigoitia galdategia izan ziren. Honen funtzionamendurako energia hidroelektrikoa lortzen zen San Pedroko Zentralean, gaur egun berriro ondoren martxan jarraitzen duena.

Gure ibilbidea **Mendixurko** Parke Ornitologikoan hasiko da. Ganboa urtegiaren muturretako batean kokaturik dago. Bertatik igarotzen diren hegaztien atseden leku garrantziatsua da, eta horrez gain, espezie batzuentzako negua pasatzeko lekua eta besteentzako habia egitekoa. Handik, A-3012 errepidetik **Larrearaino** abiatuko gara. Bidetik **Garaio** Parkera eramaten gaituen bidegurutzearekin egingo dugu topo, hau eguzkia hartzeko eta bainua hartzeko oso leku atsegina da. Errepidean aurrera egin ahala, Elgea-Urkillako mendizerra ikusiko dugu haize errotez josirik. **Elgeatik** mendi pista batetik bertara igotzeko aukera dago. A-3012 errepidetik **Araiarantz** abiatuko gara, Aizkorri Parke Naturalera sartzeko ateetako bat, bertan gure bisitaldiari hasiera emango diogu San Pedroko Zentral hidroelektrikoa bisitatzuz. Gaur egun, elektrizitatea ekoizteaz aparte interpretazio-zentro bilakatu dutena, Mitxarro Museoa hain zuzen ere. Hemendik Ajuria Urigoitia lantegi zaharreko kokalekura igo gaitzke, gaur egun erortzeko zorian dagoena, baina birgaitzeko asmoa daukate. Ondoren Zirauntza errekarren sorburura igoko gara paseo atsegina ematen. Araiako herrigunean ikaztegi baten erreplika ikusteko aukera izango dugu. Hauek ziren aintzinean galdategirako ikatza ekoizteko guneak.

Araiatik irten, eta A-3012 errepidetik jarraituko dugu Ilarduia pasa arte, Lezerantz abaitzeko asmoz. Hau mendian dagoen sekulako orbaina da, egia esan, beste aldetik sarrera daukan kobaren irteera da. Horma hauetan eskalatzailak aritzen dira gora eta behera.

Ondoren N1 autobiderantz abiatuko gara. Errepide zaharra autobide honen paraleoa da, eta bertatik Egirazerantz joango gara, Aguraingo norabidea hartuta, bertan Aizkomendi Trikuharria ikusi ahal izango dugu. Bigarren mailako errepide hauetatik Aguraineraino joango gara. Agurain ingurutean "eguzki-baratzak" daude, urrutitik ikus daitezkeenak, bata Mezkiarantz hartuta, eta bestea Erdoianarantz. Ondoren Opakuarantz abiatuko gara A-128 errepidetik, eta ezkerretarantz Okariz eta Munainera eramango gaituen bidegurutzea hartuko dugu. Bi herri hauen artean ehun urtetik gorako haritzia bisitatu ahal izango dugu bidezidor bati jarraituz.

A-128 errepidera bueltatu, eta aurreraxeago Arrizalarako bidegurutzea topatuko dugu, bertan beste trikuharria ikusteko aukera izango dugu, Sorginetxe izenekoa. Kondairaren arabera, gertu dagoen Lezaoko koban bizi ziren lamiak gau batean trikuharri hau eraiki zuten, harri puskak beraien lineien puntetan garraiatuz. Aurrerago Pedroko Hezegunea daukagu, orain dela gutxi Aguraingo Udalak berreskuratu duena. Hau hegaztientzako aterpea eta elikagaiak lortzeko lekua da, eta Arrizalatik irtetan den pista batetik hel gaitzke hona.

Gero mendizerrara helduko gara, zuhaitzak eta zelaiak egoki ustiatzeko partzuergo publikoa dena, inguruko herri guztiak partaide direlarik. Pagadien eta inguruetako idiazabal gazta ospetsua egiteko esnea ematen duten ardiak erresuman gaude. 4000 mila ardi latxa inguru bilduko dira hemen bazkatzeko sasoietan, horrez gain mila behi inguru eta 400 zaldi inguru biltzen dira bertan.

Entzia-Iturrieta mendizerra oso ingurune egokia da naturaz gozatzeko, bertan monumento megalitikoak ere ikusi ahal izango ditugu, antzinako kokalekuen lekukoak direnak. Naturaren babesaren aldetik, zerra hauek Natura Sare 2000ko parte dira, eta LIC izendapena daukate. Basoa, gehienbat pagadia, zabaleraren bi heren hartzen ditu, zelaiak % 20 eta gainontzekoa zuhaixkek (txilarrak, elorriak eta ipuruak) hartzen dute. Inguru honetako fauna ere oso aberatsa da. Basoko fauna da nagusi, 138 espezie ornodun, hauetatik 84 hegaztiak dira, 11 narrastiak, 11 anfibioak, 3 arrainak eta gainontzekoak ugaztunak.

Entzia eta Iturrieta Nafarroako Andia eta Urbasa mendizerren jarraipena dira. Guztien artean goi-lautada handi bat osatzen dute, 900 metroko batz besteko garaierarekin. Altuera garaienak honakoak dira: Dulantz mendia, Nafarroan, 1.239 metrokoa eta Baio, Araban, 1.197 metrokoa. Kareharrizko blokea denez, formazio karstikoa da nagusi: kobazuloak, lapiazak, dolinako A-3114 errepidea hartuz Iturrietako etxealdera helduko gara, 1933an sortua patataren laborantza hobetu nahian. 1981ean Estatuak Erkidego Autonomoari laga zizkion laborantza ikerketarako kompetentziak, eta horrekin batera Iturrietako etxealdea.



TURISMOA ETA ONDAREA Ibilbideak

Gaur egun hainbat patata espeziekin batera, ikertzeko orduan beste espezie batzuk hartzen dituzte kontuan: apaingarri landareak (gladioloa), elikatzeko landareak(brokulia, babarrun berdea, artoa), biomasa eta biodiesela ekoizteko landareak basartoa eta koltza). Eusko Jaurlaritzako ibilgailuak, neurri batean, hemen ekoiztutako erregaia erabiltzen dute. Etorkizunari begira, etxealdea energia berriztargarrien Interpretazio Zentrua izango da eta ikerketekin jarraituko du. Baita Partzuergoko mendizaletasunaren inguruan informazioa emateko gunea.

